

**RESURI AGURRA**  
**ERRIGOITIN BATUTAKO KRISTAU-ALKARTEAN**

*“Jauna, zure adiskidea gaixo dago”  
(Jn 11,3).*

Jauna, zuk maite zenduana hil egin da.

Bai, Jauna,  
guk maite genduana  
eta gu maite ginduzana  
hil egin jaku.

Eta gu,  
oinazeak eta ezinak  
tristurak eta ezinak  
jo gaitu bete-betean;  
nahigabeak eta atsekabeak  
hustu eta menperatu gaitu  
zama eroanezina gainean  
itsu eta mutu  
barrubide itxietan  
negarra begietan  
eta samin garratza bihotzean  
itolariaren eraso pean.

*“Ene Jainkoa, ene Jainkoa!  
Zergaitik itzi nauzu bertan behera?”  
(Mt 27,46).*

Barruko saminak  
kexura garoaz

sumin gabe bada be  
argitasun eskera  
mingostasun biziz  
bakartade umezurtzetik  
zuk behinola gurutzean bezala  
oihu-mina jasotzera:  
*“Aita, zergaitik itzi nauzu (gaitu-  
zu)  
bertan behera?”*

*“Sinistu nabi dot, Jauna!  
Lagundu sinisgabe boni” (Mk 9,24).*

Eta gure iluntasunean  
nora ez itxian  
zure erantzun bareak  
argiz laztantzen dau  
gure egonezin latza:  
*“Begira! Neu naz  
biztuera eta bizia.  
Nigan sinisten dauana  
hilarren be biziko da”.*  
Harrezkero,  
nahiz eta  
ezin eutsi sentimentuei  
hain maite izan dogu elkar...,

sinistu egin nahi dogu, Jauna,  
Zuregan finkatzen dogu  
fedea osoa,  
zure berbetan  
erabateko konfiantza  
buruaz gaineko  
opzinoa eginez  
Aitaren eskuetan jarri  
bizia eta etorkizuna.

Baina, *“egintzetan azaltzen ez bada,  
hilda dago fedea” (St 2,17).*

Zure dohaiz  
eta ingurukoen laguntzaz  
sinisten dogu, bai, Jauna,  
eta zure eraginez  
eraginkor izan dadila  
nahi geunke.  
Izan ere,  
Gogoan dogu, Jauna,  
Behinola Zuk esana:

“Frutuetatik ezagutzen da zugatza” (Mt 12,33),  
frutuetatik ezagutuko zaitue  
egintzetatik ezagutuko dabe  
nire ikasle zareena;  
egia ukaezinezkoa da  
hartan be  
egintzetan adierazten ez bada  
hilda dagoala fedea.  
Jesusen agintzariak, bada,  
eguneroko bizitzan behar dau

egiaztatua eta haragitua.  
Jaunaren dohai dogun fedea  
ondare aberatsa  
pozez onartu behar dogu  
leku eginez  
arduraz landu  
eskertu eta hazurmamindu  
ospatu eta mantendu  
adierazo eta autortu  
geure bizitzako  
eguneroko betebeharrak  
eta zereginetan.

Ba, begira, Jauna:  
Sinismena  
bizitzarekin lotzen  
eta egintzetan egiaztatzen  
ahalegindu da Resu.  
Lanari ekin deustoz  
zintzo eta arduraz  
lanbidean zein baserrian  
gogotsu jardunez  
eta etxeko txikiekin  
abegikor  
eta zerbitzari izanez  
lanaren nekeak eta zamak  
leporatuz eta eroanez.

*“Benetan dinotsuet: nire seniderik txikien  
boneetako edozeini egin zeuntsoena,  
Neuri egin zeunsten” (Mt 25,40).*

Maite izan dau herria  
bere hurrekoa

Errigoiti jaioterria  
 gogotsu eta pozik  
 hutsik barik  
 parte hartuz  
 bertako alkarbizitza  
 eta kultur ekintzetan  
 bertako jaietan  
 zantzo eta irrintziz  
 partaide izanez;  
 oso gaixorik egoala be  
 Bizkaiganeko Santa Kurtzetan  
 herritarren alaitasunetik edanez.  
 Eta maite izan dau, baita,  
 herri handia, Euskal Herria,  
 herri nahi eta ezina  
 bertan gizon-emakumeak  
 makal eta min dira  
 bidezko eskubideak  
 eskuratu ezinda  
 familiako eta adiskide  
 kartzela ilunean  
 bakartadearen hotzak janda...,  
 baina Resuk  
 benetan maitatu ditu  
 eskuzabaltasunez jokatu  
 eta euren familiei lagundu.

Lana eginaz  
 eta herria maitatuz gainera  
 familian eta herri giroan  
 jaso eta bereganaturiko fedea  
 Errigoitiko fededunen alkartean  
 benetako “eleiztar” izanez

agertu eta sendotu dau  
 beste fededunekin batera  
 indartuz eta autortuz.  
 Alkartean bizi izan dau fedea  
 harengandik jaso dauana esker-  
 tuz  
 eleizkizunetan parte hartuz  
 fedekideekin sakramentuak os-  
 patuz  
 baina baita  
 ahal izan dauan bestean  
 alkartea zintzo zerbitzatu  
 kanpoko eta barruko zereginak  
 arduraz burutuz:  
 eleizea garbitu  
 sakristau eginkizunak  
 zintzo leporatu  
 hil-kanpaiak jo  
 parrokiako diru-kontuak eroan  
 eta abade bako ospakizunak  
 zuzendu.

Eta guk barru-barrutik  
 eskatzen deusugu:  
 “Hartu, Zuk, Jauna,  
 hil hau zeruan,  
 betiko bizilekuan”.  
 Hori eskatzen deusugu  
 Jainko onbera eta errukior horri  
 inor ez dalako hemen  
 hego eta guztiko  
 aingeru zuri-zuri.  
 Zure handitasuna

parkatzean adierazten dozun  
Aita errukitsu hori  
egiozu abegi gure Resuri  
oker eta hutsegiteak  
bazterrera itzi  
Kristoren buru-eskeintzaz  
ezereztu eta hautsi.  
Egite onak, ostera,  
Jesu Kristorenekin alkartu  
aintzat hartu eta  
aldikotasuna gaindituz  
betikotasunean betikotu.

*“Emoiozu, Jauna, betiko atsedena,  
eta betiko argiak argi egin begio”.*

Zorionez Zeuk esanda dakigu,  
Jauna,  
Zeu zaitugula  
ARGIA, BIDEA, eta BIZIA.  
Zeugan dogu, bai,

itxaropena eta  
garapen guztia.  
Izan bere,  
“Egun Handian”  
ate barri adeitsua  
zabalduko jaku  
maitasunez beteko  
oinetxean  
hartuko gaitue  
eta argiz jantziko gara  
berkizkunde aintzatsuan  
Jainkoagazko  
gure semetza/alabatza  
betikotuko danean.

*“Zorionekoak aurrerantzean Jaunagaz  
bat eginik biltzen diranak. Atsedena  
izango dabe euren nekeetatik, lagun  
dabez-eta euren egintza onak” (Ap 14,  
13).*

*Lontzo Zugazaga*